



merkurioren BURRUNTZIA

Coenagrion mercuriale

TAMAINA

19 - 27 mm

ITXURA

Arrak gorputza urdin eta beltza du.

Emea ilunagoa da, bizkarraldea beltza du eta ez du xehetasun nabarmenik.

Pausa denboran, hegala tolestuak dira eta erronbo beltz itxura dute.

ESPEZIE
BABESTUA
HARRAPATZEA
EDO HILTZEA
DEBEKATUA DA

NOLA IDENTIFIKATU?



NOIZ?

> Maiatza erditik abuztu erdira

NON?

> Erreketan
> Arroiletan
> Iturrietan



Arrak beste burruntzi mota batzuekin nahas daitezke.

Emeak oso zailak dira ezagutzen, ar baten identifikatzea hobe da.

AURKEZPENA

BIZI ESPERANTZA

2 urte

ESPEZIEAREN EKOLOGIA

Helduek, hegaldian ehizatzen dituzten intsektuak jaten dituzte ondotik landaredian pausaturik.

Helduak, nagusiki, ur eremu eguzkitsueta belarretan pausatzen dira.

Merkurioren burruntzia, landaredia duten iturburu edo erreken inguruan ugaltzen da. Errunaldia uretako landareetan egiten da eta larben garapenak hogeit bat hilabete irauten du.

BEHARRAK, MEHATXUAK ETA ERRONKAK

Larbak, idortea oso gaizki jasaten du, baita iraupen laburrekoa ere, eta kutsadura organikoarekiko nahiko sentikorra da.

Merkurioren burruntzia landaredian eta uraren arrasean mugitzen da. Kilometro batetik gorako distantziak egin ditzake. Ondorioz, erreka edo arroilen ondoko belardiak oso garrantzitsuak dira espeziearentzat.

Horregatik, eremu urbanizatuek, oihan eremuek edo sasiek barreiatzea asko murrizten dute.

Arroila zatiek korridore ekologikoen funtzioa bete dezakete. Adibidez, gune antropizatuen inguruan ibai txikiak egoteak helduei bidea errazten die.